



IOKIN ZAITEGI
(1906-1979)

Egilea:

PAKO SUDUPE

EUSKAL KIXOTEA

Euskal idazlea, irakaslea, eta apaiza izan dugu Iokin Zaitegi nagusiki, baina mereziak ditu beste hainbat titulu ere, gurean oso gutxi merezi izan dituztenak: euskararekin maiteminduriko kixote idealista, mezenasa, argitaldaria, euskal kulturaren aldeko indiano guatemalarra... Idatzi eta argitaratu dena berak egiten zuen, oso

diru-laguntza urriarekin. Hortaz, idazlea eta argitaldaria buru batean. Idazlea eta mezenasa ere bai: indiano guatemalarra, Erdialdeko Amerikan –El Salvadorreko San Salvadorren, eta batez ere Guatemalan– egindako diruak, lanaren lanez bildutakoak, bere ondasun propioak handitzeko ez baizik euskaldun guztiok geurea dugun kulturaren xahutzeko batere gupidarik izan ez zuena.

1



Iokin Zaitegi (1906-1979).

2

Jesuitetan hazia eta hezia, alabaina Lagundia utzitakoa, euskal idazle eta jesulagun izatea bateraezinak jotzean. Haatik apaiz izateari ukorik egin gabe, bere euskal abertzaletasuna dela medio irakasletza eta apostolutza bere herritik kanpo bete beharra izan bazuen ere; izan ere, irakasle eta apaiz beste inongoa baino gehiago Guatemalako herritarrena izan zen.

Euskal idazlea izan dugula adieraziz abiatu gara, baina zein ezaugarri ditu lokin Zaitetik euskal idazleen artean? Oroz lehen eragile handia izan genuen, berak *Aitzolen gizaldia* izenez bataiatutako belaunaldiko kide garrantzizkoa. Eta eragile, hain zuzen, alde honetatik: kultura jasoa, ez soilik usadio zaharreko kultura herritarra, euskararekin uztartzea bazegoela, egin zitekeela, eta euskaldunok egin behar genuela aldarrikatu ez ezik praxian, etsenplu ematen ahalegindu zelako, etorkizuneko Euskal Ikastetxe Nagusirako, hots, euskal unibertsitaterako, lehen harriak ezartzen sutsuki ahaleginduz.

Eragile ez ezik eraginkor: lorpenen artean, Guatemalan 1950ean sortu zuen *Euzko-Gogoa* aldizkaria aipatu behar dugu guztien gainera. Euskara hutsez, hamar urteren buruan argitaratu zen lehen kultur aldizkariaren zuzendaria (1950-60)

izan zen. Ildo honetan, eta lorpenak izatera iritsi ez zirenen artean, aipagarriak dira Euskal Kulturaren Alde zeritzan batzordea eta Euskal Idazleen Etxea. Lehenbizikoa, Parisen 1956an egin zen Lehen Euskal Mundu Batzarrean eratu zen, eta delako batzorde horretako lehendakari (1956-76) izan zen. Bigarrenari dagokionez, euskal idazleen elkartearen egoitza gisa amesten zuen Euskal Idazleen Etxea hein ttiki batean gauzatzerik izan zuen, baina hori, oso neurri txikian; besteak beste, 50eko hamarkadan gertatu zen belaunaldi desberdinen arteko diferentzia eta tirabiren ondorioz.

Bakarka idazgintzan egindako lanaz den bezainbatean, Loiolako jesuiten ikastetxean euskal idazgintzarako deia, bokazioa, pizten zaionetik kultura jasoa euskarara ekartzen, birmoldatzen, sortzen saiatuko da. Olerkari gisa jasoko zuen estreinakoz idazleen artean aitormena eta ezagutza; izan ere, Aitzolek, Espainiako II. Errepublikan, antolatu zituen Oleriti Egunerarik bosgarrenean, 1934an, Zarautzen eta Lizardi zendu berriaren omenez egindakoan, *Tori nire edontzia* izeneko olerkiarekin haritz adarra eskuratu zuen. Gerraostean ere jarraituko dio olerkigintzari eta idatzi nahiz itzulitako olerkiak bi liburutan bildu zituen:

Goldaketan, eta *Berriz ere goldaketan* izeneko bildumetan. Euskal antzerkiaren maila goratzeko egindako ahaleginekin, idazle grekoen itzulpenekin ez zuen olerkiekin bezainbat asmatu. 1933an argitaratu zuen *Antigone* eta Sofoklesengandik heldu zaizkigun antzerki guztiak itzultzera iritsi zen, 1946an eta 1958an argitaratuz.



lokin Zaitegi D. Elias Azpiazu eta D. Francisco Urrutia-rekin. Bere jaioterriko bi maisu hauek piztu zioten jakin-mina eta ikasi-nahia.

Espainiako eta munduko II. gerraren ostean, prosa-lanei ekin zien euskal kulturaren bilakaerarekin bat. Kronologiari jarraiki, lehenbizi *Bidalien eginak* burutu zuen, apaizgaiei latinez ematen ziena euskaraz berridatzi, eta saio erako liburua moldatuz. Greziako jakinduriaz eta idazleen gainean ere zerbait baino gehiago bazekien, eta hurrengo Platoni helduko zion. Lehenik, saio liburua biribilduz: *Platon-eneko atarian* egungo egunean ere bere balioa baduena aurrerago agertuko dugun bezala; eta ataria ez ezik Platonen elkarrizketa famatuak, burutan ateratzeko. Prosa-lanez dihardugula, era berean ez dira ahaztekoak *Euzko-Gogoa* aldizkarian idatzitako *atarikoak* eta artikuluak, batez ere, hainbat filosoforen gainean idatzitakoak, eta belaunaldiez oro har nahiz zehazkiago Aitzolen gizaldiaz *Euzko-Gogoa* eta *Egan* aldizkarietan argitaratu zituenak.

Hitz gutxitan, eta soilik euskal idazgintzari gagozkiola, kultur eragile aparta, eta euskara kultura jasoarekin uztartzen ahalegin gaitzak egin zituena inork gutxik egin zuenean. Lorpen eta oinarri aipagarriak utzi dizkigun aitzindari bipila.



4


Lehenik, bizi-urratsei egingo diegu tarte, hori bai, beti ere hauen artean kokatuz aldi bakoitzean egindako idatziak ere, hots, hemengo bizialdia eman zuen bezala, bizitza eta idatziak uztarturik. Bigarren atal nagusian berriz, kasu gehiago idatziei egingo diegu eta ez bizi-urratsei.

1906ko uztailean munduratu zen Arrasateko herrian. 14 urtera arte han biziko da, garai hartan bost bat mila laguneko herri euskalduna zen Arrasate herriko alde zaharreko kale artean¹. Kale artean txorromoroka, Musakola auzoan txori-habiak harrapatzen, eta errekan arrantzuan. Jakina, eskolan ere bai, herriko eskolan, ordurako batere ezjakinak ez ziren D. Elias Azpiazu eta Don Francisco Urrutiarekin. Batez ere Don Patxik oso herrikoia eta pedagogia sen handikoa izan behar zuen, esaterako, geografian lehenbizi hurbilenekotik hasten zitzairen erakusten, Arrasateko inguruetatik, zabalduz-zabalduz, harik eta

¹ Lan hau egiteko asko baliatu naiz Josemari Velez de Mendizabalen *lokin Zaitegi* liburuaz. Zorra aitortu nahi nuke.

Europako geografia erakusteraino iritsi arte. Hori gauden mendeko bigarren hamarraldian.

Baina laster hartuko zuen elizako bidea, herriko parrokiako abade zen Don Pakoren mutil hasiko da hamahiru urterekin, eta handik urtebetera, Durangoko jesuiten etxean zegoen aita Basabe jesulagunak bilduko du gazteak atzitzeko zabalduz sarean. Badirudi hamalau urteko mutikoa zenak berak adierazi zuela jesuita bidean jartzeko gogo. Ez gainera nahikunde hutsa gogo bizia baizik; izan ere, amari aurre egin beharra izan zuen, Durangoko jesuiten ikastetxera joatea lortuko bazuen. Amaren kontrakotasuna aipatu dugu, eta dirudienez elizkoia bezain zorrotza izan behar zuen lokinen amak, semeak berak hala aitortzen dio



Josemari Velez de Mendizabali honek amaren galdera egitean, eta herritarren iritziz berriz, kandela baino zuzenagoa. Batzuek larregi beste batzuek gutxiegi. Herritarren iritziz, ama zuzen-zuzena bazuen, aita oso bestelakoa zuen, lanean irabazten

zituenak bere kasako ibilaldietarako nahikoa ez zituena. Iokin Zaitegiri, 28 urte zituela, banatu zitzaizkion aita-amak, Belgikako Marneffen jesuitekin teologia ikasten ari zela. Bi hitzetan, ez zuen gozotasun handirik ezagutu etxean.



Iokin Zaitegiren aita, Juanito Ixurtza, makurtuta, eskuinetik aurrera. Gurasoak, 1934an, Iokin Belgikako Marneffe-n Teologia egiten ari zela, banatu zitzaizkion.

JESUITA ETA IDAZLE BOKAZIOA

Durangon urtebetez nagusiki grekoa eta latina ikasten aritu ondotik, ohi zenez, hamabost urte egiten zituen egunean Loiolara joko du, jesuita izateko bidean lehen urrats sendoak emateko. Orobat euskal idazle izateko bidean ere, hementxe emango ditu lehen urrats erabakigarriak.

Badirudi lehen bi urteetan, nobizio ona izan nahiak edo izan beharrak hartzen zizkiola ordu guztiak. Ikaskide izan zuen Iñaki Goenagak kontatzen zidanez, nobizio-urteak gogorak eta latzak izaten ziren. Egundetako gogo-jardun luzeak, eskean ibili beharra izaten zuten hilabetea, eta ospitalean gaixoak artatzen eman beharreko aldia aipatzen zizkidan. Eskeko hilabetean inguruko herrietara joan beharra izan ohi zuten eskean, bildutakoa iristen ziren herri edo hiriko erretoreari eman beharra izaten zutela. Ospitaleko hilabetean gaixorik urrikgarri eta higuin-emangarrienak zaindu beharra izan ohi zuten beren burua apaltzen eta Jesukristo behartsuaren tankera hartuz joan zitezten. Ez da, bada, zer harritu, bestetarako astirik ez bazuen.

Alabaina, behin boto txikiak egin 1923an, pobrezia, garbitasun eta obedientzia botoak egin, eta jesuitagai

junior izatera igaro orduko, lokin Zaitetik eta Andima Ibiñagabeitiak Jainkoaren dei berezi bat izan zuten. Ez dago oso garbi nola eskuratu zuten *Ami vasco* izeneko katixima nazionalista, aita Apalategik erabiltzen uzten zien liburutegitik edota Andima Ibiñagabeitiaren amak sartu zuen Loiolan; nolana ere, nola lokinek hala Andimak, biek irakurri zuten txango ateratako batean, eta harrezkero bihotzean bi maitasun suhar izango zituzten maiz elkarrekin gatazkan: ala Jainkoa zerbitzatu jesuita esaneko izanik ala euskal kultur langile gartsu bilakatu.

Iokinek eta Andimak ez ezik, Lauaxetak, Plazido Mugikak, Sarobek, Korta anaiak, Iñaki Goenagak, Argaratek eta beste banaka batzuek Euskal Elerti Bazkuna, euskal akademiak osatuko dute Loiolan. Denbora gehiena aita jesuita izateko ikasi beharrekoak estudiantzen emango dute, baina, lanarteak euskara maiteari eskainiko dizkiote, bereziki lokinek eta Andimak, gainerakoen lanak gutxietsi gabe. 1917an argitaratzen hasi zen *Jesusen Biotzaren Deyan* egingo dituzte lehen idazle izan nahiko ahalegintxoak. Europa eta Ipar Ameriketako literaturaren ezkutuen berri aita Estefania bilbotar irakasleak emango die, eta batez ere greko eta latindarren literatura klasikoa aski ongi

bereganatuko dute. Euskal talde txokoen ikasi eta aztertutakoa euskal kulturaren mesedetan erabiltzeko zina egingo dute, etorkizuneko unibertsitatearen oinarri gerta zitezkeen klasiko greko-latinoen zerrenda bat burutuz euskarara bihurtzeko. Beste izen bat ezin ahaztuzkoa, aipatzen dihardugun jesuitagaiok Loiolan bertan aurrez aurre ezagutzerik izan zutena, aita Olabide da. Honek ez du jakingo eskola sortzen, baina Azkueren hiztegi famatua ustiatuz eginiko Itun Zaharraren eta Itun Berriaren itzulpenak jarraitu beharreko eredu izanen dira jesuitagaiontzat. Eragin

handia izanen du lokin Zaitegirengan Olabide gasteiztarrek. Delako klasiko itzulpenen zerrenda hori gauzatu nahian hasiko dira baina behaztopak behaztopen gainean metatuko zaizkie.

Loiolan oztopo aita Bianchi donostiar errektore erregezalea, Alfonso XIII.aren zalea izanen dute. Loiolan bost urte igaro eta Burgosko Oñara eginen dute, han filosofia ikasteko. Filosofiako doktoregoa lortuko du lokinek bertan, *Doctor in Philosophia*, eta harrezkero beti bere izenaren ondoan Ph.D jarriko du. Horretaz gain, aita Labururen *Citologia* euskaratuko du *Kizkiña (zelula)*, eta *RIE* ven argitaratuko

7



1935eko uztailaren 31n eman zuten lehen meza Belgikako Marneffe-n. Hemen Teologia egin, eta euskal kultura lantzeko Euskal Elerti Bazkuna eratu zuten hainbat euskaltzalerekin batean: Andima Ibiñagabeitia, Patxi Etxeberria... Burua bera zen. 1936ko gerra hasi zenean, jesuita frankozaleek su eman zieten euskaltzaleen idaztegiei.

1933an. Baina euskararen alderako grina beren bihotzean zutenak, beste batzuekin nahasi eta Ameriketara bidaliko dituzte nagusiek 1929an: Andima eta Plazido Mugika Kolonbiara, beste batzuk El Salvador eta Guatemalara, eta lokin Zaitegi berriz Venezuelako Meridara. Hala juzgatuko ditu gauzak behintzat lokin Zaitegik, handik urteetara. Bidenabar esan, Lauaxetak 1928an utzi zuela Lagundia. Bizimodu gogorra eramango du Meridan, eta hango eskarmentua era-erara etorriko zaio El Salvador eta batez ere Guatemalan, Espainiako 36ko gerraostean, irakaskuntzan emango dituen urte luzeetarako. Badirudi Meridako hiru urteotan euskalgintzatik eten samartuta egon zela bestelako lanez itoa; Marneffera iristen denean teologia ikastera, aldiz, gogo berriz eta arrakasta nabarmenez helduko dio euskal idazgintzari. Ez da ahaztu behar, Hego eta Erdialdeko Amerikan barreiatu ibili ondoan berriro elkartzen direla Belgikako Marneffen euskal elerti bazkunekoak atzera lanari ekiteko.

Diogun delako taldearen buru lokin Zaitegi izango da; izan ere, idaztiak argitaratzen hasia da, gorago esan bezala (*RIE*ven *Kizkiña*); olerkigintzan dihardu, eta Lizardirekin eta, aberrian gertatzen ari den euskal Pizkundeko

idazle gailenenekin, gutun bidezko harremanetan da. Esaterako, Lizardiri han-hemenka egindako olerkiak bidaliko dizkio kritika ditzan. Honek egindako kritikak kontuan hartu, eta 1934an, Zarautzen hain zuzen, aurreko urtean zendua zen Lizardi poetaren omenez eginiko V. Olerti Egunean, garaileen haritz adarra eskuratuko du *Tori nire edontzia* izeneko olerkiarekin. Andima Ibiñagabeitia izango du lankiderik hartuena delako euskal akademian, eta honek teologia amaitu baino lehen, 1935eko Aste Santuan, alde egingo du Lagunditik. Lokinek jarraitu egingo du, eta 1935eko uztailaren 31n, San Ignazio egunez beraz, lehen meza emango du Marneffen.

Itxura batera zoria alde zuen, euskal letretan ezagutza lortua, lehen meza emana. Bestelakorik ere bazen ordea! Lagundiko agintari hainbatentzat eskualde-hizkuntzen aldeko tirria erakustea ez zen jainkozkoa; are gehiago, zenbait moralista jesuita izen handikorentzat bekatu ere bazen Zaitegik-eta euskararen alderako zuten grina sutsua. Marneffen izan zuten Etikako irakaslearentzat, esaterako, nazionalitatek ez zuten inolako eskubiderik; izan ere, kitatu nahi zituzten bidegabekeriak kitatu ahal izateko egin behar izango zituzketen kalteak handiagoak izango baitziren

zuzendu nahi zituzten okerrak berak baino. Agintariek ez ezik jesuitakide zituzten hainbat eta hainbat espainiarrek ere begiko ez baina begitan hartuak zituzten Marneffen. Franko eta Mola jeneralek 1936an penintsulan gerra abiarazi zutenean Afrika eta Nafarroa aldetik, euskaltzaleon kontrako espainiar frankozaleek su eman zieten hauen idaztitegiei, behialako Inkisizioaren kerak berrituz.

Estatuz aldatu gabe, Marneffetik Morialmera jo, han urtea igaro, eta Errumaniara egin nahiko zukeen lokin Zaitegik Espainian gerran zirela, lagunak bai baitzituen Errumanian, baina goikoek Ameriketako El Salvadorreko hiriburuko apaizgaitegira bidaliko dute. Harako bidean sei bat hilabeteko egonaldia egingo du Panaman, kanal famatuaren inguruan. Delako egonaldia ingelesa ikasteko eta Wadsworth Longfellowren *Ebangeline* zeritzan eleberria euskaratzeko baliatuko du. El Salvadorren lehenago Venezuelan egin bezala berriro irakaskuntzari lotuko zaio. Bertako liburutegi ederra baliatuz *Bidalien eginak* liburua idatziko du. Ez da, ordea, laketzen han. Jose Antonio Agirre New Yorken da European barrena, Berlin barne, nazi eta faxisten ihesi ibili ondoan, eta harengana egin nahi luke hari esku bat

botatzeko. Ez diote goikoek ametitzen ordea. Hala ere lokin ez dago Franko aldarera eraman nahi luketen goikoei buru euskalduna makur-makur egin eta men egiteko prest. Lehenbizi, lanbide eta diru-iturria segurtatu, Guatemalako artzapezpikuaren eskutik, eta 1944ko ekainaren 29an Lagundiarekiko loturak hautsiko ditu. Harrezkero bere buruaren jabe da noranahi joateko, eta batez ere, euskal kulturaren aldeko lanerako.



Luma ederki astindu zuen Zaitegik euskal kulturaren alde. Era askotako oztopoak gaindituz, lan eskerga egin zuen euskara eta kultura uzartu beharrez.

LAGUNDITIK KANPO

Guatemalan, Eusko Jaurlaritzak emandako nortasun agiriarekin sartuko da, eta bertako lehendakariarekin bilera eginik bertan geratzea lortuko du agiri espainolaren beharrik gabe. San Carlos unibertsitatean eta Instituto América ikastetxean irakasle izango da, grekoa eta Elizaren historia-eta emanen ditu, eta 1951n Landibar lizeoa sortuko du, barneko ikasleentzat Santa Mónica zeritzan egoitza eta guzti. Irakasle eta zuzendari gisa ateratako diruok, sakelari begira jarrita, negargarri den enpresan inbertituko ditu, hain zuzen lehen euskal kultur aldizkaria izanen den *Euzko-Gogoa* aldizkarian. Euskal kulturak beti izanen du ezin kitatuzko zor hau lokin Zaitegiren alderako.

Euzko-Gogoak hiru idazle nagusi izanen ditu: Orixe, lokin Zaitegi bera, eta Andima Ibiñagabeitia; eta bi aldi: Guatemalako 1950-55, eta Miarritzekoa 1956-60. Guztira hirurogeita hamar bat idazle biltzea lortuko du, maila ere itxurazkoa, baina zabalkunderako arazo itzelak. Guatemalatik aberrirako tartea ezabatu nahirik Hego Euskal Herrian bertan argitara eman nahiko du, baina Guatemalan lortutako garaipena berritzez ez du izango; Madrilen ate-joka ibiliagatik Frankoren lagunengandik ez du baimenik lortuko. Ez du etsiko baina! Ipar Euskal Herriko Miarritzen kokatuko da.



Iokin Zaitegi Guatemalan, Santa Mónikako barne-ikasleekin. Guatemalako San Carlos unibertsitatean eta Instituto América-n ikastaldiak eman ondotik bere ikastetxe propioa sortu zuen, Landibar lizeoa, bertako barne-ikasleentzako egoitza eta guzti.



Orixe ezkerrean, bere ondoan Zaitegi, eskuin-eskuinean Andima Ibiñagabeitia beste lagun batzuekin. Orixe, Zaitegi eta Andima izan ziren *Euzko-Gogoaren* zutabeak.



Guatemalan ikastetxeak aurrera ateratzeko egindako ahaleginaren aitormen agiria.



Bere jaioterri Arrasaten, berrogeita hamar urte egiten zituen egunean senitarteko (bere eskuinean ama) eta lagunez inguraturik. Hegoaldean atera nahi zuen *Euzko-Gogoa* baina diktadurak ez zuen baimenik eman, eta Miarriztera jo zuen.

Guatemalan arazo handiak izan bazituen aldizkaria aurrera ateratzeko, hemen ere, aberrian ere, garratzetik gehiago izango du gozotik baino. Alde batera, gizon handi eta miretsia bezala zetorren, euskal kulturaren heroi ttiki; izan ere, 36ko gerra aurreko pizkundean parte hartua, Orixe irakaslearen lankidetzan izan zuena aldi labur batez bada ere, euskara hutsez kultur eduki jasoz hainbat ale aterea Guatemalako erbestean; horiek guztiak hala izanik ere ordea, oztopo ugari eta era askotakoak bizkarreratuko zitzaizkion. Jose Antonio Agirrereren konfiantza bazuen, eta Parisen lehen Euskal Mundu Batzarrean (1956) lortu zuen Euskal Kulturaren Alde zeritzan batzordearen burutza, eta Euskal Idazleen Etxea sortzeko diru apur bat ere bai; ez zuen, ordea, delako etxe horretarako apopilorik bereganatu. Gipuzkoako Aldundiaren babespeko *Egan* hor zegoen, Euskaltzaindia bere motelean indar hartzen ari zen, eta bere inguruan nahi zuen Euskal Idazleen Elkartearen sortu; belaunaldi berriek bestelako ideologia ezkertiarra zekarten, existentzialismoaren eragin handiagokoa behinik behin, eta Zaitegi eta kidekoen euskarak ere ez zuen gora handiegirik hainbat idazle berriengan. Hitz bitan, Orixeren *Euskaldunak* (1950) poematik



Iokin Zaitegi Ramón Sota nazionalistarekin. 1956an, lehen Euskal Mundu Batzarra egin zen Parisen, eta bertan sortu zen Euskal Kulturaren Alde (E.K.A.) izeneko batzordea. Batzordekideak: J. M. Barandiaran, J. M. Leizaola, Josu Solaun, T. Monzón, Joseba Rezola eta Manu Sota. Diruzain: Gonzalo Nárdiz; Andoni Urrestarazu idazkari, eta Iokin Zaitegi lehendakari.



Iokin Zaitegi Guatemalako indiarren apaiz. 1962an, laguntzat jotzen zituen hainbat euskaltzalerekin etsia harturik, Guatemalara jo zuen berriro ere. Arrazoi politikoengatik, gehiago izan zen Guatemalako herritarren apaiz euskaldunena baino.

Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutuarra* (1957) tarte gaitza zegoen hamarkada berean argitara izanagatik.

Euzko-Gogoari 1960 arte iraun ahal izan zion. Guatemalatik orduko hirurogei mila dolarren jabe etorri bazen, diru-eske ibili behar izan zuen Guatemalarako bidea ordaindu ahal izateko, eta diruok, jakina, euskal kulturari xahutuak. Beste hamar urte egingo ditu amerindiarren apaiz Guatemalako herrixka batean 1962tik 1972ra. Apaizgoan ez ezik Platonen elkarrizketak euskaratzen jarraituko du, gero 1972an jaioterriturik, 1975etik aurrera argitaratuko dituenak, *Platon I, II, III, IV, V*.



1979ko abuztuaren 17an hil zen euskal literaturaren azken kixotea. Jarraibide ederra, etsenplu bikaina, eta aldi berean jarraitzeko zaila utzi digu lokin Zaitegik.

1979ko abuztuaren 17an hil baino lehen, zenbait omenaldi eskainiko dizkiote lagunek, eta Arrasateko herriak. Honek, 1976ko abenduaren 19an herriko seme kuttun izendatu zuen, eta egun berean Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain. Baten batek jasoko zituen ohoreok gutxiago merezi izanda.




1976ko abenduaren 19an Arrasatek, bere jaioterrriak, Seme Kuttun izendatu zuen. Egundun berean Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain. Inork merezi izatekotan, lokin Zaitegik merezi izan zituen.



lokin Zaitegi euskaltzainekin.

14

Bakarra den Zaitegi hirutan banaturik aztertuko dugu: Zaitegi prosalaria, poeta, eta itzultzailea; baina aztertu gain-gainetik, eta hau bi arazoirengatik; bata lan honen helburu beragatik, zabalkunderako baliagarri izatekoa alegia; eta bestea, eta nagusiena, aurretiazko ikerlanen urritasuna tarteko².



² Zuzenki Zaitegiren prosaz ez dut inongo ikerlanik aurkitu. Poetaz eta itzultzaileaz, biak ere mamitsuak izanagatik, orri erdi bat baino ez: Jon Kortazar, *Literatura vasca Siglo XX*, Etor, 1990, 92 or., eta Xabier Mendiguren Bereziarturen *Euskal Itzulpenaren historia laburra*, Elkar, 1995, 144 or. Bestalde, 1936ko gerra aurrean, V. Olerti Egunean, saria irabazi zuenean, Aitzolek egin zion iruzkina. Ikus: *Aitzol, idazlan guztiak*, 5. Liburukia, Erein, 1986, 78-84 orr. Eta Joseba Intxaustiren: «Zaitegi eta Euzko Gogoia» in *Jakin* 12, 1979, 120-137 orr.; eta «Euzko-Gogoaren lanak» in *Jakin* 13, 1980, 96-119 orr. Eskerrak ematen dizkiot Joseba Intxaustiri eman didan laguntzagatik.

PROSALARI

Bere idazle estiloa zirriboratu baino ez dut egingo atal honen azkenaldera, eta aurretik eragile eta euskal kultur langile gisa jokatu zuen paper garrantzitsuaz zenbait argibide emango ditut.

Zaitegiren kasua aski adierazgarria da: barruko deiak egingo zuen idazle, baina bere barne munduari adierazpidea aurkitzeko orduan, aldi bakoitzean literaturaren errepublikan boladan eta mentan zegoen generoa erabili zuen nagusiki.

Lehenbizi, itzulpenak egingo zituen hizkuntzan trebatzeko, baina literatura izenez dei dezakegunaren alorrean olerkien bidez abiatuko da, eta itzulpenak ere antzerki-lanetara bideratuko ditu, Aitzolek Espainiako II. Errepublika garaian sustatzen zuen Euskal Pizkundea mugimendu literario-kulturalarekin guztiz erara. Herria esnatzeko, bere barneko izaeraz kontura zedin olerkiari garrantzi handia ematen zitzaionean olerkiak burutuko ditu, eta arrakasta eta gizarte-eragin handiko generoa zenean antzerkia,

antzerki-lanen itzulpenak egingo ditu. Beti ere maila, kalitatea goratu nahian, herri moderno bat bultzatu nahian, horretarako tradizio greko-latinoan oinarrituz.

Hogeita hamaseiko gerra aurrean, nolabait esan, Aitzolen-eta mutil izango da; gerraoste gozogabea, aldiz, berak hartuko du iraungiko ez iraungiko zen Pizkundearen zuzia, eta eraberrituz jarraipena ematen ahaleginduko da. *Gure asmoa* izeneko orri hegalaria bidaliko du Guatemalatik Euskal Herrira, euskal idazleengana bidalia, hauei elkartu eta *Euzko-Gogoa* aldizkaria aurrera ateratzeko deia eginez.

Alde batera, esan dugun bezala, jarraipen: *ipui, olerki, edo antzerki edo beste azalpenen bat euskeraz ba' duzu, bidali iguzu, otoi.* Aldizkariak, ehunekoei begira jarriz gero, %57 argitaratuko du literaturaz; baina eraberrikuntza ere bai; izan ere, hala aldarrikatuko du gorago aipatu orri hegalarian: *Arrezkero, euskeraz bakarrik idatzi nai dugu, euzko-gogoaren barne-muiñetaraño eldu gaitezen.* Hizkuntzalaritzaz idatzitako %14,43k, Soziologiaz %4,5ek, Historiaz %5,86k, Filosofiaz idatzitako %3,35ek eta abarrek garbi adierazten dute Zaitegik *Euzko-Gogoa*ekin lortutakoa aise gaitzen zuela



15

Aitzolek *Yakintzarekin* euskaraz burututakoa; bestela esan askoz aurrerago joan zela alor guztiak, literaturakoak ez ezik bestelako kultur gai ororekikoak ere euskaraz lantzeko bidean, euskal kulturaren normalizazio bidean. Horretarako, Zaitegik berak egina zuen ordurako, nahiz 1955era arte ez zuen argitaratuko, *Bidalien egiñak* saiakera. *Euzko-gogoa* aldizkarian filosofia jorratuko du, eta garbi azalduko du aldizkaria zein gizaldi edo belaunaldiren emaitza den, Aitzolen gizaldiaren fruitua hain zuzen.

16



Euskara hutsezko lehen kultur aldizkaria. 10 urtez iraun zuen (1950-60). Zuzendaritza eramateaz gain, hainbat filosofoz idatzitako artikulua eta atarikoak edo editorialak nabarmentzen dira guztien gainetik.

Artean euskal literaturaren historia mantuxetan zegoen. Orixek egina zuen historia labur bat, Axularren, Larramendiren eta Sabino Aranaren inguruan bilduz idazleak, baina ezer gutxi. Zaitetik ahalegin berezia egingo du belaunaldien ezaugarriak zedarritzeko, eta horiek Aitzolen gizaldiak, olerkari belaunaldiak, betetzen dituela baieztatzeko. Eta hau guztia, esanguratsuki, euskal belaunaldien arteko borroka gorienean zegoenean.

1890. urtez gero jaioak denak, antzeko irakurketak egindakoak, batez ere Europako poesia liburuak, Frantzia, Alemania, Ingalaterra eta


Italiako idazleenak, ez hainbeste Espainiakoak; Aitzol eragile nagusi zutela *Yakintza* aldizkariarekin, eta Orixe nolabait gidari eta irakasle. Ezaugarri hauekin batean, olerki hizkuntza berritzeko erabilitako hitz harrobia aipatzen zuen, Azkueren hiztegi famatua, eta errimak berritzen egindako ahalegina nabarmentzen. Bidenabar, aipatu beharra dago, zentsura frankistaren «artaziak» erabili behar ezin tematsuagoagatik, itxura batera nahiko apolitiko dirudien auzia, literatur belaunaldien arteko tirabirak, ez zuela behar bezala jorratzerik eta argitaratzerik izan. Beste behin ere, euskal kulturaren garapenerako traba politiko gaitzak!

Gatozen Zaitegiren idazle estilora. Olabideren miresle eta jarraitzaile gisa, kultur terminoak beste hizkuntzetarik hartzeari ez dio oniritzen, eta itzulingeruak ez ditu baztertuko jorratu behar duen kultur gaia jorratzeari ekin aurretik, erabili behar dituen hitzak euskaraz definitzeko. Diodanaren adibide argiena, *Egan* aldizkarian, 1963an, argitara zuen «Belaunaldiaz» deritzan artikulua da. Azkueren harrobia nola ustiatzen duen egiaztatzeko aukerakoa da,

zenbaitetan hitz-aberastasun erakustaldi arranditsu samarrak eginez. Alde txarra ez ezik badu alde ona ere; izan ere, zenbait baliabide jarauntsiko dizkigu, baliatzen jakinez gero aberas gaitzaketenak.

Beste bereizgarri nabarmenetako bat, metafora edo izadizko elementuetan oinarrituriko konparazioak dira. Nire ahogozorako, segur aski garai desberdinetan bizitzearen isla ere izango da, gehiegi luzatzen da, eta testua erritmoaren aldetik geldotu egiten da direlako

17



Euzko-Gogoa eta *Egan*en artean izan zen tirabirarik. Hala ere, ez zuen arazorik izan *Egan*en argitaratzeko. Belaunaldien arteko talkak gogor markatu zuen Zaitegi.

18

konparazioak direla bide. Gorago aipatu dudan artikuluan areago, *Platon-eneko atarian* liburuan baino. Honetan, gehiago asmatzen du, tamaina hobeki hartzen dio. Nolanahi ere, esan beharrik ez, azterketa zehatzagoa eta osoagoa behar du Zaitegiren obrak, hau guztia hobeki pisatzeko.

Apologia merkean erortzeko arriskurik gabe, *Platon-eneko atarian* liburuak merezi du irakurtzea, zailtasunak gorabehera. Zer ikasia ugari aurki dezakegu bertan, gure mendebaldeko kulturaren zimenduez jakin-minik izanez gero.



Pentsalari grekoa euskaraz aurkezten aurrena Zaitegi izan genuen. Liburu polita, batez ere, Grezia maite dutenentzat.



Olerkiak itzultzen, eta batez ere sortzen, esku trebea erakutsi zuen. *Tori nire edontzia olerkiarekin garailearen haritz-adarra* lortu zuen, 1934an, Zarautzen, Espainiako II. Errepublikako V. Olerti Egunean.



POETA

Aitzolek, V. Olerti Egunean haritz adarra lortu zuen *Tori nire edontzia* olerkia iruzkintzen ari, zioen Homeroren eta Mistralen eragina zuela. Alabaina, handik eta hemendik hartutako olerki-gaiei Zaitegik jakin izan zuela batasuna eta edertasuna eransten. Aukeran, bertsoak gogortxoak, iluntxoak jotzen zituen. Mami sakon-goitiarrari bere horretan utsiz, hau bertso leun, errazagoetan isurtzeko gomendioa luzatzen zion.

Jon Kortazarrek postsinbolismoaren izenpean laburbiltzen du Zaitegiren poesia egiteko estiloa, honako ezaugarriekin: paralelismoa, analogia, natur gertakarien barneratzea, eta poesien antolaketa klasikoa, nola ahapaldiak tolestatzeko hala metrikari dagokionez. Erruralismoa berriz, narrazio-poesiara hurbiltzeko egindako ahaleginari egozten dio.

Ezaugarriok atxikitzen al ditu Miarritzeko aldia (1956-1961) olerkigintzari darraion Zaitegik? Beharbada ezaugarriak bai; hala ere, gaietan berrikuntzak nabariak dira.

Irakur izenburuok: «Euskadi berri», «Euskal Ikurrinari», «Eusko gudari bati», «Gaupean dagoen Euskadi'ri». Irakur honako olerki zatiok:

Euskalerrri zarra gur(e) Euskadi berri
Gerta ledin ari gaituzu lanean:
Bat egin dezagun euskal-mugapean
Geranok, berori baitugu Aberri. (...)

Sortu dugun erri onetan lankide
Geranok dezagun op(a) askatasuna:
Europa'ko erri gera kidez-kide,

Gutarteko nausi biz anaitasuna:
Lengoa oinarri, oraingoa bide
Egingo baitugu, gur(e) etorkizuna.

(Baionan 1961eko Aberri egunean)

Edota:

Mendietan izan zinan euskaldun gudaria,
Orain ditadurapean goseak bizi zera.
Tori abertzale onek dagizun oparia,
Alai, betargi ta baikor zakusadan oster.
(...)

Badu euskal-ezbearrak bere andizurena:
Gudian izan nai gendun euskaldunok
garaile:
Aberriarren il zedin euskal-gudari urena
Españi erri geiena izan gendun iltzaile.

(Guatemalan 1962-2-15).



ITZULTZAILE



Asko itzuli du Zaitegik. Besteak beste, Sofoklesen antzerki guztiak, eta Platonen elkarrizketak.

Xabier Mendiguren Bereziarturen arabera, joera formalista hertsia samar batean eginak dira itzulpenok, jatorrizkoaren hizkuntza formulazioei oso hurbiletik jarraiki burutuak. Hizkuntz ereduari dagokionez, Olabideren urratsetan ibili izanagatik lexiko aldetik, eta sintaxiari dagokionez Sebero Altuberi hurbiletik jarraitu izanagatik ikuspegi pragmatikoaren aldetik gogor eta ulergaitz samarrak gertatzen dira itzulpenok.

Oraindik orain, Joxe Azurmendik³ ez du gupidarik izan, bere Platonen elkarrizketa-zatien itzulpenek Zaitegiren itzulpenekiko dituzten zorrak aitortzeko. Horretaraz gero, zailtasunak zailtasun eta gogortasunak gogortasun, Zaitegik burututako lana ez da baliogabea; baliatzen jakin behar!



Sopokles I eta II;
Euripidesen *Medea* (Egan).



Platon I, II, III, IV, V eta VI.
Asko itzuli zuen, era formalista hertsia samarrean. Egun gogortxoak egiten zaizkigu; hala ere, baliagarriak badira, baliatzen jakinez gero.



³ «Sokratesen defentsak, Platon», *Jakin*, 1999, 59. Oharra, 74 or.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Josemari Velez de Mendizabal.*
- *Euskaltzaindiako Azkue Liburutegia.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2000ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84 457-1621-2 (Obra osoa)
84-457-1623-9

L.G.: BI-3154-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística